DOHAN ZEURE ETXERAKO

# ...eta Kitto!

1989ko Apirila / 4. Alea

EIBARKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA

# Pobrezia, etxeko abereak eta emakumea babesteko neurriak

**Gizarte honetako beste fenomenu batzurekin batera, pobreak, animaliak eta emakumeak nolabait, eta bakoitza bere modura, bazterturik eta diskriminaturik aurkitzen ditugu. Egoera zuzendu nahaian neurriak hartu dira.**

## POBREAK BABESTEKO NEURRIAK

Eusko Jaurlaritzak POBREZIAREN KONTRAKO PLANGINTZA bat arautu du. Dekretu hau Martxoaren 7an atera zen, oraindik lege modura azaldu ez delarik. Plangintza honen helburua diru-sarrera txikia duten familiei laguntza minimo bat ematea litzateke, 30.000 pzta familiako hain zuzen. Bestalde, ditu laguntza hauek urtebeteko epea izatea interesgarria irudituko zaio norbaiti.

Diru eskaria egiteko pertsona guztiek kondizio batzuk bete beharko dituzte:

• Lehen eta behin, dekretua indarrean jarri baino 6 hilabete lehenago osaturiko famili-unitate baten kide izatea. Bigarrenez, Euskal Herriko edozein Udaletxean erroldatuta (enpadronatua) egotea, herrikide bezala, gutxienez Dekretua indarrean jarri baino 3 urte lehenago.

• Hirugarrenez, behar besteko diru-baliabiderik ez izatea.

• Azkenez, 25 urtetik gorakoa eta 67tik beherakoa izatea. Dena den, 25 urtetik beherakoek badute posibilitaterik artikulo honen beste baldintzak betetzeaz gain, semeak heuren ardurapean badituzte.

Eibarko Udaletxeko Sanitate eta Gizarte Ongizate departamentuan, bi pertsona (asistenta sozialak) kontratu behar dira diru-eskaera hauek aztertzeko. Eskaerak Diputaziora bidaliko dituzte: azkenean, Diputazioak bereak erabakiko du baiezkoa ala ezezkoa.

Udalak inongo informaziorik zabaldu gabe 45 eskarera jaso ditu.



Dena den espero, Mª Jose Lasa Gizarte Laguntzaileak dionez, Apirilaren erdikalderako langile berri horiekin Udalak martxan jarriko duela plangintza hau.

Diputazioak eskakizuna aprobatzen badu, lehen esan bezala, familiari 30.000 pzta emago zaio, eta honetaz gain, 5.000 pzta familiako partaide bakoitzagatik (eskagilea kontutan hartu gabe). Kontutan hartuko direnak hauek izango dira: matrimonioak edo bikote ez ezkonduak; une adoptatuak; deszendentzia, bigarren mailararte; eta aszendentziari dagokionez, bat bakarrik hartuko da kontutan.

Dekretuak, ordea, ez du ezer bakarrik bizi diren behartsuei buruz. Ez-ta ere 67 urte baino gehiagorekin 20.000 pztarekin bizi direnetaz. Komunitate Autonomoan enpadronatu gabe dagozen kanpotarrak ere ez dira sartzen.□

## ETXEKO ABEREAK ETXEAN EGIN DITZALA BEREAK




Sanitate eta Gizarte Ongizate arloak etxeko abere, eta batez ere, txakurren jabetzari buruzko Udal Ordenantza bata ateratzeko asmoa du. Ordenantza honetan, orohar, txakurren jabeak bete behar dituen printzipioak azalduko dira.

3 hilabetetik aurrera, jabeak txakurraren jabetza deklaratu beharko du Udal bulegoetan. Bestalde, txakurrak «rabia»-ren kontra txertatua egon behar du; honetaz gain, badaude komenigarriak diren beste txerto batzuk ere.


Kalean ibiltzeko moduari dagokionez, txakurrek katez loturik joan behar dute, eta bozalarekin arriskutsuak baldin badira; gainera, koilarrean txapa bat eraman beharko dute.

Txakurrak ezin dira janaria almazenaturik dagoen lekuetan sartu, ezta sukaldeetan ere. Tabernetan sar daitezke jabeen baimena edukiz gera, baina betik loturik. Bestalde garraio publikoetan ezin izango dira sartu abereak.

Txakurrak ezin izango ditu bere zereginak ibilbideetan egin: jabeak ondo begiratu behar du txakurrak non uzten dituen bere gauzak.

Dena den, dekretu honetan animaliak babesteko zenbait arau ere agertzen dira: ezin da animalia hil edo-ta jo; ezin dira animalien arteko burrukak antolatu; ezin dira animaliak baztertu...

Beraz animaliak errespetatu behar bagaituzte, errespeta ditzagun guk ere animaliak.□




SANITATE ETA GIZARTE ONGIZATE SAILA

## EMAKUMEA

Emakumearen departamentuaren arduradun teknikoa den Enkarna Martinek esan zigunez, aurreko esaldi horren alde jokatu beharra dago: «emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu behar da, eta argi dago gaur egun hau ez dela ematen; berdintasuna eza hau heziketan, lanbidean, eta azken finean gizartearen arlo guztietan nabari da»□.

imigas
Markina bidean z/g
ERMUA (BIZKAIA)
Tlfno; 943-170700-04
170597
FAX 172267

- Berugailu eta osasunerako ur beroa.
- Sukaldeak; ikatza, egurra, berogailua+acs.
- Beheko-suak, txininiak.
- Berogailu-galdarak; gas-oil, gasa, electrikoak.
- Termoak, ur berogailuak, radiadoreak.

Ford KONDIA, S.A.
Zatoz "FIESTA" BERRIA Ikustera
EIBAR

# EUSKARARAREN TRANSMISIOA

Hizkuntza baten transmisioa definitzerakoan, beraien gurasoek zuten hizkuntza seme-alabek zenbaiteraino gorde duten adierazten dugu.

Eskolak hizkuntzaren transmisioan jokatzen duen papera oinarrizkoa bada ere, familiaren horrenbeste edo zerbait haundiagoa dela esan dezakegu. Horregatik euskararen ezaguera maila eta ama-hizkuntzaren arteko erlazioa ikertzea onuragarria litzaiguke.

Ondoren eskeintzen dizuegun kuadroan aldagai bien arteko erlazioa ikus daiteke:

| AMA-HIZKUNTZA | GUZTIRA | EUSKALDUNAK | EUSKALDUNEN % |
|---|---|---|---|
| Euskara | 12.876 | 11.723 | %91,0 |
| Gaztelera | 13.336 | 839 | % 5,1 |
| Biak | 3.630 | 1.487 | %41.0 |
| Beste bat | 1.053 | 19 | % 1.8 |
| GUZTIRA | 33.895 | 14.068 | %41.5 |

Lehenik trasmisioak jasotzen duen %9ko galera azpimarratzen dugu: ama-hizkuntza euskara zutenengandik bakarrik %91tik mantendu duela adierazten digu, hots %91k euskara dakitela eta txikitan euskaraz hitzegiten zuten batzuk gaur ez dakitela (%9 horrek).

Eta keskagarriagoa da oraindik erroldan edo padroian ama-hizkuntza bezala hizkuntza bihak zituztela esan zutenen %59ak euskara galdu egin dutela aitortzea.

Bestalde ama-hizkuntza gaztelera edota erdara zuten hainbat pertsonek euskara ikasi eta bigarren hizkuntzatzat dute, baina gutxi dira, eta osatzen duten kopuruak euskara galdu dutenen kopuruarekin konparatu ezkero ez du inolako pisurik, portxentaietan %4,ia besterik ez delako. Honek esan nahi du euskararen errekuperazioa edo berreskurapena oso motela dela.

Euskararen galera ez da garai guztietan berdina izan. Horrela amahizkuntza euskara dutenak adinaren arabera 3 taldetan zatitu ezkero zera ikus daiteke:

| ADINA | GUZTIRA | EUSKALDUNAK | EUSKALDUNEN % |
|---|---|---|---|
| 0-14 Urte | 1.632 | 1.522 | %93.3 |
| 15-64 Urte | 8.871 | 7.847 | %88.5 |
| 65 eta geh. | 2.376 | 2.354 | %99.1 |

65 urte baino gehiago duten gehienek euren ama-hizkuntza gorde egin arren, beste taldeetan ez da gauza bera eman. Helduen, hots, 15-64 urte tartean kokatzen direnek %12ak bere ama-hizkuntza galdu egin du. %12 honen kopuru nabarmenena 20 eta 35 bitarteko adina dutenengan kokatzen da, hots, 1959 eta 1966 bitartekoetan jaio zirenengan.

Hamabost urte horietan galera %20ra iristen da. Galera honen zergatiak ulertzeko ezin dugu ahaztu Eibarrek garai hartan jasan zituen aldaketa sozialak, «bomm» industriala, inmigrazioa,...

1970a geroztik jaio diren belaunaldietan edo generazioetan ama-hizkuntza hobeto mantendu da, eskolan, heziketan, euskarak lortu duen presentziagatik eta batipat eredu euskaldunen garapenagatik.

Zalantzarik gabe euskarak hezkuntzan izan duen ezarpen prozesuak, eragin haundia izan du gure hizkuntzaren garapenean urtero «B» et «D» ereduen elebidunez eta euskara hutsean bitartez ikasten duen haur kopurua haundiagoa da. Dena den, hizkuntzaren ezaguerak ez dakar erabilera. Eta egindako inkestan eta baita orain urte batzu Eibarko Udalak egindako estudioan, Eibarko ezaguera mailari dagokion erabileraren eza edo falta azpimarratzen da. Hau dela eta, beharrezkoa deritzogu guztiei euskal giro eta erreztasun ugari eskeintzea, dakiten euskara erabil dezaten. Era honetan, euskararen ezaguera eta erabilera mailak berdin daitezen.

Ima BERASALUZE


## Nagusientzat

**EUSKARA TRANSMITITU DUZU?**

## Gazteentzat

**EUSKARA TRANSMITITU DIZUTE?**











**JOSEBA ZULUETA. 28 urte.**
**Klub Deportibo-an tabernari.**

«Nik euskaraz dakit gurasoak transmititu didatelako eta baita ere ikastolan ibili naizelako. Tabernan etxean baino gehiago mintzatzen naiz euskaraz. Etxean noizean behin erderaz egiten dut, edo hobeki esanda «noizean behin euskaraz egiten dut». Euskara semeei transmititzea nire ustez beharrezkoa da, nik hori egitea espero dut behintzat. Tabernan horregatik egiten dugu euskaraz, transmisio medio egoki bat iruditzen zaigulako».

**MARGARITA BERISTAIN. 63 urte.**
**Etxekoandrea.**

«Nahiz eta nik euskaraz ondo jakin nire etxean beti egin dugu erderaz, nire alabak ez daki euskaraz, ez dugu izan euskara egiteko ohiturarik. Orain hasi naiz nere ilobei euskaraz egiten, ikastolan dabiltza eta».

**JOSE JAVIER BERASATEGI. 25 urte.**
**Langabezian.**

«Niri gurasoek transmititu didate euskara. Ez naiz sekula ikastolan ibili, beti erdarazko eskoletan. Ez naiz sarritan euskaraz mintzatzen, hala ere noizean behin bai lagunekin eta bai gurasoekin egiten dut euskaraz».

**GERARDO KASTILLLO.**
**Elektronika ikasten. 17 urte.**

«Nire amak badaki euskaraz baina nire aitak ez, beraz amarekin ikasi dut euskara; gainera ikastolan ibilitakoa naiz eta horrek asko lagundu nau».

**IKER. 9 urte. Ikaslea.**

«Nik euskaraz dakit nire gurasoak ikastolan sartu nautelako, beraiek ez bait dakite ongi euskaraz. Hala ere etxean gurasoekin batzutan mintzatzen naiz euskaraz, gehien nire anaiarekin.



**TELESFORO ZUBIKARAI. Jubilatua.**

«Bai seme-alabei eta bai ilobei transmititu diet nik euskara, gainera euskaraz erderaz baino hobeto moldatzen naiz. Hala ere ilobak beraien artean erderaz egiten dute, beharbada Aldatzen eta La Salle-n betidanik ibili direlako. Beraz, dakiten euskara guk transmititu diegunari esker dakite».



**MARIA JESUS SIERRA. 25 urte.**
**Langabezian.**

«Nik oso gutxi dakit euskaraz, eta dakidana ez dut ez gurasoengandik, ez eskolan ikasi, kalean jendearen artean baizik. Nire alabari oso zaila iruditzen zait euskara transmititzea, hala ere euskara ikas dezan nahi dut, behintzat hortan ahaleginduko naiz. Nik beti nahi izan dut euskara ikastea, gustatuko litzaidake jakitea, baina hau dela edo bestea dela alde batera utzi izan dut beti».

# AGENDA

## KIROL ARLOA

**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK**
Antolatuta:
9an: «Memorial Balenciaga» (1. eta 2. mailako afizionatuak)
23an. Pedalaren eguna. (herrikoia).

**ESKI IRTEERA: CLUB DEPORTIBO**
8an: FORMIGALera. (Informazio gahiago 71 19 04. ESKI SAILA)
15ean: URKIAGA - BELATE MENDATEA. MENDI IRTEERA. CLUB DEPORTIBO
22tik-30 era: Argazki Erakusketa. Antonio Cruces. Kaja Laboralaren Erakustokian. Club Deportiboak antolaturik.

## KULTURA SAILA

Apirilean.
1tik- 9ra: «Liburu zaharrak eta berriak saltzeko Azoka». Untzagan
9an: Udal Musika Bandaren kontzertua eta kalejira.
13an: Kontzertua, arratsaldeko 8retan. Kontserbatorian.
23an: Udal Musika Bandaren kontzertua.
5tik 19ra: PINTURA ERAKUSKETA. Carlos Fernandez Gasulla eta Marta Zelaia. UDALETXEKO KULTUR ARETOAN.
27tik- Maiatzaren 14 era: ERAKUSKETA. «EUSKAL HERRIKO BURNIGINTZA ETA HERREMENTARITZA». Udaletxeko kultur Aretoan.

## ZINEA

EIBARKO ZINE-KLUBA: Rialto Zineman. Gaueko 10,30etan
7an: «LA BOCA DEL LOBO» (Lonbardi.
14an: «NOLA DARLING». (Spike Lee)
21an: «UN DOMINGO EN EL CAMPO». (Tavernier)
28an: «EL VIENTRE DEL ARQUITECTO»(Peter Greenaway)

## A.E.K.k ANTOLATUTA: 6. KORRIKA

Iruñatik. Donostiara. Apirilaren 14tik-23ra bitartean.
EIBARREN: 22an goizeko 2ak aldean pasatzeko da. KONTXA LASPIURI OMENALDIA. ASTE KULTURALA ANTOLATUKO DA.

## UNIBERTSITATE LABORALEAN

Apirilaren 2gn hamabostaldia «DEBA-BEHEKO ESKOLARTEKO ANTZERKIGINTZA» Topaketak.

## EUSKARA BATZORDEKO BERTSO ESKOLAK ANTOLATUTA

**BERTSO AFARIA**
Apirilak 15 (larunbata), gaueko 9 etan, BOMBA Elkartean LIZASO, AGIRRE, MENDIZABAL Bertsolariekin.
Izen ematea: Udaleko Euskara Zerbitzuan (1180 64 Tfnoan).

## NORK ZER


- **Koordinatzailea:** Fernando Muniozguren
- **Erredakzio-taldea:** Ana Aizpurua, Idoia Arrillaga, Mirella Ugarteburu, Idoia Irazola, Fernando Muniozguren
- **Argazkilariak:** Iñigo Santos, José Valderrey
- **Maketazioa:** José Valderrey
- **Inprimaketa eta fotokonposaketa:** ANTZA

# Doloresek:

## "Ahal izan ezkero behintzat mesede eiñ"

**Doloresek diñouskunez: «Neuk eitxen dot elixako kargua: kanpaiak jo, edo... hildakua datorrenian ari autendiru...telefonuari edo... hango gauzia neuk eitxen dot. 22 urte daroiadaz serora edo sakristau antzera. Ta elizakua eiñ ta gero tabernara juaten naiz serbitzen, loibian tabernan, hantxe egoten naiz biarrian. Ta oiñ(eguardi inguruan) etortzen naiz etxera, ta gero atzera zazpi t'erdixak arte ba jokuan eiñ arratsaldian ta gero atzera be bera, atzera serbitzera».**



Dolores bere illoba Sarakin.

**— Kontauko ahal doskuzu kontutxoren bat?:**

*«Ba...ez takitx ba,eh... beti ba... ondo urtetzen zestan beti. ...Ja!, ja!, ja!, ja!... ja!, ja!, ja!, ja!,...ez takitx ba ze izan leikian kontutxoa, ezta?...oiñ momentuan etxata akordatzen. Ba...honetxek hazten (esan dosku bere semia atian agertu danian). Hainbeste urtian ziar badakizue zenbat gauza pasako jatan...baiña etxatak akordatzen».*

**— Elizan zer eitxen dozu?; egunero juten zara?**

*«Egunero ez, lehen egoten zan mezia ixa egunero...ta oiñ zapatuetan eta domeketan. Ta gehixao ezta egoten entierrurik ezpada edo. Entierrua edo ba...baten batek zertzen badau (telfonuaren gainean dihardu) ba hona esaten dabe eta gero hemendik nik dirigitzen dot ba... abadia. Baita be eitxen ditxuraz elizako gauzak bildu ta..., jendia datorrenari atendiru ta...., argixak emetau ta..., kankapaiak jo ta... halakotxe gauzak, halakotxiak dira nik eitxen diturazenak.*

**— Hamengo Azitaino elizatik abade asko pasau dira?:**

*«Lelengua Jose Ignazio Anzuategi izan zan. Honen atzian Jon Etxabe etorri zan. Hau politikan sartuta euan ta harrapau eiñ zebien oiñtxe 20-22 urte inguru, beste Eibarko batzuekin batera eta denpora askuan egon zan kartzelan; gorrixak pasatu zituan. Guk be estu pasau gaunduan Jon egon zanian ze poliziak etortzen ziran errigistruak eitxera. Jonek pistolia Amabirgiñian atzian gordeta ekan. Gugana be egunian-egunian, zenbat polizia!!, zoratu eraiñ!! geu zoratzia nahi eben gitxienez. Poliziak txartuao portatzeakuzen gaurdia zibilak baiño, guardia zibilak hobeto portatzeakuzen.*

*Oiñ beste abade bat dakagu, bakarrik sapatu eta domeketan etortzen da meza ematera».*

**— Zure bizimodua zelakua izan da? esaiguzu lau berbatan:**

*«Nere bizimodua izan da ba...beti ba...biarra!, biarra ta biarra!. Lelengotan tabernia nekan baserrixan; ni eh...14 urtetik hasi ta hona beti serbitzen egon naiz. Gero Azitaiñera bajatu giñanian 44 urtian Azitaiñen nabil, hortxe tabernan, Azitaiñ tabernan. Ta juaten naiz hamaika t'erdixetan: maixak ipini ta... jente asko egoten da. Ta gero ba...laurak inguruan igotzen dou gora ta joakuan eitxen dou ta atzera zazpi t'erdixak inguan berriro serbitzera».*

**— Ta 44 urte ibili ta..ondiokan segitu eitxen dozu biarrian?:**

*«Bai, familixiana da tabernia ta... ni beti egon naiz hor biharrian».*

- **JONEK PISTOLIA AMABIRGIÑAN ATZIAN GORDETA EKAN**
- **14 URTETIK HASI-TA HONA BETI SERBITZEN EGON NAIZ**
- **GERRA OSTIAN HASI ZAN EUSKERIA GALTZIAREN KONTUA**
- **GAZTETAN BETI ILLUNAREKIN BATERA ETXERA, BESTELA AITXAK ETA AMAK...**

**— Oiñ zenbat urte dukazuz ba?:**

*«Oiñ ba...ja!, ja!, ja!, ja!, ja!,... —siete siete-eukingo ditxuraz datorren hillian. «Sasoi adarrean eta ondiokan gaztia dauala esan doutsagunian zera erantzun dosku: «Bai... hori bai... mordo bat kendu ezkero edarra!!, hirurogei bat kendu ezkero, bai ederra!!*

*Aurreko «...eta kitto!»-ko alietan ateratako personajiak: Paulino, Querido eta Ramon asko ezagutzen dabezala aitortu dosku, batez be Querido ta Paulino dira bere ezagun haundixak: «harek asko ezautzeitxut nik, Pulino ta... Jose be bai... Jose Querido be asko... Ene!!... gu, zenbat!! alkarrekin asko ibiltzen giñan!!, Jose Querido ta... juaten da ba.... mendira beti asko, ta ni be mendizalia naiz; ta mendixan beti ba: Arraten, edo Salbadorren, ta Asurtzan. Jose Queridorekin asko ibilitxakuak gara, asko....asko...».*

**— Eibarrek kanbixo handixa edo zelakua emon da zuretako?:**

*«Eibar len politxaua zan, gaiñera dana ezauna ta... dana euskalduna ta...bueno!!. Kastellanuak lenao kazuelei azpiko berrixak ipintzen ibiltzen zian, horretxek bakarrik!! bestela... danak euskaldunak!!. Gaur ostera, euskalduna topatzeko pasau bihar dituzu beste milla kastellanuak. Lehen iñok pez erderaz, ioñ aldrebes. Gerra ostian hasi zan euskeria galtziaren kontua, ez eben lagatzen ta euskerarik eitten».*

**— Len eta oiñ zenbat kanbixatu dira gaztiak?; eta denporak?:**

*«Gaztetan beti illunakin batera etxera, bestela aitxak ta amak..... gainera orduan pixkat beranuduau juaten bazan...bueno!!. Beti aiztia ta ni alkarrekin ibiltzen giñan, juaten giñan erromerixara ta...bixak bildurtixak!!ta... bildur batekin etxera... mendira juan bihar gainera ta... bueno!!...ze bildur eruaten genduan guk bixak!!, nik halan be; desastria baiña!!; bildurtixa, ni.... demasa!!. Beraunduan ez bagiñan agiri... aitxak eta amak gaiñera...bueno!!: len ez euan oingo konturik!!, —ia ze sasoi zan ha etxera etortzeko-ta...*

*Gaiñera oiñ ezin leike lengo moduan kalian be ibili, len ez eban iñok urtetzen oiñgo moduan. Zenbat bider juaten giñan etxera, ta sekula be ez zeskuen iñork be urten.*

*Baten, eh...zerian, soiñujoliakin eta soiñuakin juan giñan ta urten ezkuen besteren bat giñalakuan, orduan automobillik ez euan ta .... izango dira: berrogei urte bai. Bagatoz bixkor ta.... dzzzaaaa!!! urten ezkuen. Ene!!....guk pasau genduan esturia!!!. Etxera errekazulorik errekazulo juan giñan, okerreko bidiak hartuz. Ni kobardia, ta gure aiztia be bai ta...bi kobarde, pentsau zelan ibiliko giñan!!.*

*Azkenian eta bukatzeko zera esan dosku apal-apal: «horritxek gauzok eitxen ditxut, —AHAL IZAN EZKERO BEHINTZT MESEDE EIÑ—».*

Comercial ETESA
BULEGO-MATERIALA-ALTZARIAK
BIDEBARRIETA, 66
TELEFONO 121973-74
20600 EIBAR GIPUZKOA

GURE LEKU
PINTXO GOZOAK ETA KAFE EZIN HOBEA
ISASI-3 TFNO. 11-71-89

BAR PINTXO
...
C/SAN JUAN • TELEFONO 7008'99
EIBAR

Ego-Gain
Kafetegia
J. Etxeberria 2
Tfno 117165
GOZOAIRZIOAAIKNZGIO

GURBIL
jatetxea
...kasi kalea 1 - Tfno 11152 - eibar

GRABADOS ESKULAN
Aldatze 4 behea
Tfno (943) 713103
20600 EIBAR

# Afariketan euskara berbara

Udal honetako Euskara Batzordeak, orain dela urtebete pasatxo umeen aisialdi edo denbora libreari begira esperientzi berri bat martxan jarri zuen. Gaur egun esperientzi piloto honek (Euskal-Herrian ez omen da horrelakorik egin —Arrasaten ezik—) aurrera jarraitzen du. Baina zer da esperientzia hau? Batez ere umeentzat, edo hobeto esanda umeekin era guztieatako aktibitateak egitea. Ekintza hauetan ume gehienak asteburuetan parte hatzen badute ere, badira astean zahar jarduten dutenak.

Aipatu denez, era guztietako aktibitateak egiten dira, edo behintzat ahal bezain ugari eta ezberdinak. Honela txikienak (1.2. eta 3. mailak) batez ere jolasak, eskulanak, mahai jolasak, lehiaketak eta irteerak (mendira, baserriak ikustera, zelaietara...). A! eta ebita ezina den futbola, dudarik gabe umeen lagunik onena.

Erdi zikloan (4. 5. eta 6. mailak), jolasak auzoen arteko konpetizioak, antzerkia, eskursioak (Arratera, basarrietara, Aixolako presara...) eta jadanik talde bakoitzak fotonobela bat ere burutu du, atrakoak, hilketak, bahiketak eta lapurketak izan direlarik gai aukeratuenak, maitasuna eta kuttuntasuna alde batera utziz; fotonobela beltza diote beraiek.

Nagusiak (7. eta 8. mailak) gehienbat irteerak egin dituzte (ondoko herrietara, Arratera...) baita ere fotonobela bat eta Rock and Roll ikastarotxoa (Alajainkoa) Monitoreak diotenez, batzuk traketsak baziren ere, bazeuden gutxi batzuk «estilo depuratua» zutenak.

Badira ere beste proiektu handiagoak, adibidez tartean irrati saio bat burutuko dute erdi ziklokoek. Egileek buru hauste asko izan ondoren Irrati saioari PISKI MISKI izena jarri diote eta hainbat arlo izango ditu: informatiboa, gertakizuna, lehiaketa, musika, txisteak (filtrazio baten bitartez nahiko txarrak direla jakin izan dugu)...

| | EGUNAK | 1-2-3 MAILAK | 4-5-6 MAILAK. | 7-8 MAILAK |
|---|---|---|---|---|
| EKAINA | 8-9 | Jolasak eta eskulanak eskolan | Bideoko montaje | Txapelketa: mahai jolasak-kirolak trebetasunak |
| | 15-16 | Ondoko herri batera | Txapelketa. | Mendira. |
| | 22-23 | Hondartza. | Txapelketa. | Txapelketa. |
| | 29-30 | Igerilekura edo lahiaketa bat | Kolonia batera asteburua pasatzera | Kolonia batera asteburua pasatzera |
| MAITZA | 6-7 | Mendira | Jolasak | Pisten jolasa. |
| | 13-14 | Eskolan. Ondoko zelai batera | Hondartzara. | Hondartzara. |
| | 20-21 | Boloetan jolasera | Mendira. | Eskolan ekintzak |
| APIRILA | 3-4 | Parke Batera | Jolasak. | Hondartzara. |
| | 10-11 | Mendira. | Hondartzara. | Eskolan ekintzak |
| | 17-18 | Hondartzara | Kolonia batera asteburua pasatzera | Kolonia batera asteburua pasatzera |

Guzti honekin bi helburu nagusi bete nahi dira: alde batetik Euskara bultzatu eta indartu, eta bestetik umeek euren denbora librea ongi pasatzeko aukera ematea.

Ekintzak auzoka antolatuta daude: Amaña, Urki-Ipurua, Erdialdea, Urki-zuBarrena-Azitain, eta auzo bakoitzeko eskola publikoan eginten dira.

Baina honek ez du esan nahi bertako ikasleak bakarrik parte har dezaketenik, ekintzak Eibarren O.H.O ikasten ari diren guztiei zuzenduta daude, eta aipatu denez aktibitateak larunbat goizean (Hasiera ziklokoekin), larunbat arratsaldean (Goi ziklokoekin), igande goizean (Erdi zikokoekin), astelehen arratsaldean (denak) eta ostirak arratsaldean (denak) izaten dira.

Hona hemen, asteburuetan, aste santutik aurrera izango diren ekintzak edo programaketa:

Bestalde oporretan (Gabonak, Uztaila) umeei zuzenduriko kanpainak antolatu dira eta antolatuko dira, beti ere umeak ongi pasatuz euskara praktikatzeko.

Amaitzeko azken ohar bat: zuek, guraso eta neska-mutilok, guzti hau atsegin baduzue, oraindik garaiz zaudete apuntatzeko. Izen emateak, ez du 500 pzta baino balio, Udaleko Euskara Zerbitzura zuzendu behar delarik. Telfonoa 718064 edo 716845 da.



## SARIKETA

**Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno, hori hala bada eta IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutiz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik helbide honetara hilaren 15a baino lehen zeure datuak eta telefonoa emanez!**

**EIBARKO UDALA**
**EUSKARA ZERBITZUA**
**«...eta Kitto!» Sariketa.**

3.— Aleko sariketaren erantzuna «San Andres elizan dago, Zuloagatarren kalera aldera». Guztira 33 erantzun zuzen eta 17 oker jaso dira.

**SARITUA:** AMAIA BENGOETXEA izan da A.E.K.n 6 urratsean diharduena. Berarentzat, beraz, «Ayerbe liburudenda»ren opariak.

ikusonic AUDIO & VIDEO

DISKA SALDUENAK

**EUSKAL MUSIKA**
ITOIZ: «Eremuko tunel atzetik dabil»
OSKORRI: «15 urte eta gero hau»
EGAN: «Gure historia»
TXOMIN ARTOLA: «Berriz arte»

**DENETARIKOAK**
SIMPLE RED. «A new flame»
EL NORTE. «La cabaña de la colina»
FYC (Fine young cannibals): «The raw, the cooked»
LA GUARDIA: «Vámonos».

Bestalde oporretan (Gabonak, Uztaila) umeei zuzenduriko kanpainak antolatu dira eta antolatuko dira, beti ere umeak ongi pasatuz euskara praktikatzeko.

Amaitzeko azken ohar bat: zuek, guraso eta neska-mutilok, guzti hau atsegin baduzue, oraindik garaiz zaudete apuntatzeko. Izen emateak, ez du 500 pzta baino balio, Udaleko Euskara Zerbitzura zuzendu behar delarik. Telfonoa 718064 edo 716845 da.

## IRAKURLEAREN TXOKOA

### FERNANDO MUNIOZGUREN-I

Irakurri dugu zuk koordinatzen duzun, (...eta kitto) aldizkariaren bigarren alean, guri zuzenduriko kritika eta uste dugu ezin garela isilik gelditu.

Arrazoia duzu esaten duzunean euskarari euskaraz erantzun bahar zaiola eta beraz, onartzen dugu zuk aipaturiko artikulua eta gainontzekoak ere euskaraz idatzi behar ditugula, eta honetan saiatuko gara.

Orain arte ere, kaleratu ditugun zenbaki guztietan, gogor saiatu gara euskararen presentzia handiagotzen eta mometu honetan nahiz eta agure fantzinean euskararen presentzia ez izan nahi bezain handia, uste dugu nabarmena dela.

Baina seriagoak izan gaitezen eta «...eta kitto» irakur dezagun esaten diguzunean, uste dugu sobran dagoela hori esatea zeren orain arte argitaratu dituzuen aleak irakurri ditugu eta irakutzen jarraituko dugu.

Bukatzeko esan nahi dizugu, ikus dezakezun bezela irakurtzen eta ez gara itusak. ZIHUR GAUDE ASKOZ ITSU GEHIAGO DAUDELA ZUK LAN EGITEN DUZUN UDALETXEAN GURE KOLEKTIBOAN BAINO.

Besterik gabe: «PORROT»

### EIBARREN ERE «EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ»en TALDERIK

E.H.E.-k sortu zenetik hona hainbat ekintza eta kanpaina burutu ditu euskararen alde Euskalerrian zehar; hain zuzen, Euskalerri osoan euskara normaltasun osoz erabiltzea da EHEren helburua. Frantsesak Frantziar Estatuan eta espainierak Espainiar Estatuan duten «status» bera, Euskalerrian euskarak izatea.

Eta normalkuntzaren koxka hizkuntzaren ERABILPEAN kokatzen uu EHE erakundeak. Ildo honi jarraiki, EHE «HERRI ELEBAKARREN» aldeko kanpaina ari da bultzatzen eta 20tik gora udalerrik aldeko asmoa agertu bezain laster, hasiak dira lehenengo erasoak jasaten, hau idazten ari garen egunean PSOEren gobernadore zibilek ukatu egin bait diote dagoeneko Aulestiko herriari erabakiaren zilegitasuna, edozein herri «EUSKALDUN HUTSA» dela aldarrikatzea espainiar konstituzioaren aurka doalako.

Hori ikusita, derrigorrezko jo dugu euskararen arazoez arduraturik gauden lagun batzuk, EHE erakundea Eibarko herriari hedatzea, eta egiten ari garen lehenengo ekintza euskaldun hutsak izatea erabaki duten herriekiko elkartasuna adieraztea duzue. Dena den, ez gara horretan geratuko eta sarri izango da gure berri.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

### KORRIKA-6.

Kaixo lagunak:

Hementxe gaude berriro zuekin 6.korrika hastear dagoela.
Dakizuen bezala eta beste urte batzuetan gertatu ohi den moduan A.E.K.-k korrika antolatzeari ekin dio berriz, jakina denez euskararen aldeko lasterketa honek A.E.K.-rentzako dirua batzeaz gain konzientzi susperatzailearen papera betetzen du.

Dena dela eta «FRANKISMOAREN» ostean espero zitekeen moduan euskararen egoera hobetuz joan beharrean txarrera jo du, alde batetik euskarak eta A.E.K-k egunero jasotzen dituzten erasoak ditugu lekuko eta bestetik orokorrean euskararenganako nabaritzen den dejazioa, burruka hau 2. mailakoa izango balitz moduan, ez da beraz sasoi honenetarikoa esukararentzako; baina etsipena eta amore emate horren aurrean bildu eta indarrak batu behar ditugu korrika 6.honen inguruan A.E.K. eta euskarari behar duen bultzada emanez.

Txapa txiki honen ostean korrika honi laguntzeko erak azalduko dizkiziegu: lagunza hauek ekonomiko edo fisikoak izan daitezke hau da nahi duenak kilometro bat erosi edo dirua eman dezake A.E.K-n bertan edo Lankide Aurrezkian ingrasatuz, diruarena inportantea izanik ez da helburu bakarra eta horregatik lerro hauen bitartez dei zabala luzatzen dizuegu A.E.K. eta euskaltzale guztiori korrika honetan parte har dezazuen.

## KOMIKIA

